

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

17/2026 Foru Araua, uztailaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuena

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko uztailaren 10eko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila “17/2026 Foru Araua, uztailaren 10ekoa, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuena”, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 10a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

17/2026 FORU ARAUA, UZTAILAREN 10EKOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTZEJUENA

ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak lurralde osoan barreiatutako erakunde publikoak dira. Mendeetan zehar biztanlegune askotan sustraitu eta aritu dira, eta gaur egun 333 daude gure lurraldean.

Antolaketa eta funtzionamendua direla eta, Arabako kontzejuek ohiturazko arau juridikoak aplikatu izan dituzte, hau da, idatzi gabeko arau tradizionalak, bai eta beren usadioak eta ohiturak ere.

1979ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onetsi zen, eta bertan toki araubidearen gaineko eskumen eskusiboa eman zitzaion lurralde historikoei. Eskumen horretaz baliatuta, Arabako Batzar Nagusiek funtsezko bi foru arau onetsi zituzten Arabako kontzejuen araubide juridiko-administratiboari buruz.

Lehenbizi, 1984ko uztailaren 30eko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen Errejidoreak eta Batzarkideak hautatzekoa. Arau horren bidez Arabako kontzejuetarako hauteskunde sistema tradizionala Konstituzioaren agindu batera moldatu zen: herritar guztiek dute eskubidea afera publikoetan parte hartzeko, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez.

Ondoren, 11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Herri-Batzarrei buruzkoa. Horren bidez kontzejuen estatutu juridikoa arautu zen, haien oinarrian zeuden ohiturazko arau juridikoak Konstituzioaren eskakizunen arabera moldatu eta bateratu ziren, beren jardun publikoa arautzeko behar ziren tresna juridikoak ezarri ziren, eta ezinbesteko segurtasun juridikoa eman zitzaion kontzejuetako herritarrei.

Bi arauok hogeita hamar urte baino luzeago egon dira indarrean. Horregatik, XXI. mendeko errealitatera egokitu behar direnez, erabaki da berrikusi eta bateratu behar direla, jarraian azalduko diren helburuak lortzeko:

- Arau bakar batean biltzea kontzejuen arau juridikoa ezartzen duten funtsezko bi arauak: kontzejuen araua eta kontzejuetako kideak eta errejidoreak hautatzeko araua.

- Arau berriaren testua inklusiboa izatea eta bat etortzea egungo arau juridiko guztietan nagusi izan behar berdintasunarekin, indarrean dagoen arlo honetako legerian xedatzen denarekin bat etorritz.

— Arau berritik ezabatzea edo/eta argi arautzea 1995eko arauan argi egon ez diren edo zehatz araututa egon ez diren kontzeptu eta figura batzuk, eta kontzeptu batzuk gaur egungo gizartearen errealitatera egokitzea.

— Kontzejuen jardun eremu batzuk arautzea, batez ere beren ondasunekin egiten dituzten eragiketak eta haien gaineko xedatze egintzak, bai eta espedienteen ebazpenak ere, eta kontzejuek Foru Aldundiaren laguntza eta aholkularitza baliagarri edukitzea beren eragiketa ekonomikoen eta erabakien legezkotasunari dagokionez.

— Hauteskunde araubideari dagokionez, biztanle gehien dauden kontzejuetako kideen kopurua mugatzea.

— Blokeorik ez gertatzea administrazio batzarrak edo haien ordezeko batzorde kudeatzaileak eratzerik ez dagoenean.

— Berrikuntza garrantzitsu hau sartzeari zentsura mozioa aurkeztu ahal izatea kontzejuko lehendakariaren kontra. Izan ere, kontzejuaren gobernua kide anitzeko organo baten esku dagoenez (administrazio batzordea), praktikan kontzejua blokeatu egiten da batzordeko kideen artean desadostasuna dagoenean. Zentsura mozioa tresna baliagarria da horrelako egoerak desblokeatzeko.

— Administrazio jardunaren lege arautegian nagusi den gardentasunarekin bat etorritik, arauak ezartzen du kontzejuek Aldundiari nahitaez bidali beharko dizkietela onesten dituzten akta guztien kopiak, eta eskatzen dituzten herritarrei eman beharko dizkietela.

— Berrikuntza garrantzitsu hau sartzeari: Gobernu Ona Behatzeko Organoa deritzon mekanismoa sortzea. Horren helburua izango da kontzejuen jardunaren legezkotasuna (eremu ekonomikoan zein eremu juridikoan) egiaztatzeko txostenak egitea.

— Fede emailearen figura garrantzitsuari dagokionez, 11/1995 Arauan ez zen zehatz arautzen, eta arau berrian xehetasun handiarekin arautzen da, berariaz arautzen baitira beraren izaera eta hautapena, karguan aritzeko baldintzak, eginkizunak, ordezteko modua etab.

— Halaber, arau honen bidez 11/1995 Arauak berariaz arautzen izan ez dituen egoerak arautu nahi dira, sortzen diren gatazkak modu berean onbideratu daitezkeen lurralde historikoko kontzeju guztietan, eta horretarako irizpideak bateratzen dira eta arau izaera ematen zaie (hau da, agindu izaera).

— Aurrekontu egonkortasunaren printzipioa ezartzen da kontzejuen ondasunetarako eta ogasunerako, eta berariaz debekatzen zaie eragiketa jakin batzuk egitea. Zehatz-mehatz arautzen dira auzolanak, kontratu mota jakin batzuekin ez ordezteko ez nahasteko, eta aseguru poliza egokien bidez ahalik segurtasunik handiena bermatuko zaie haietan parte hartzen dutenei.

Arau berriak atal hauek dauzka: zortzi titulu, lau xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, bost xedapen indargabetzaile eta azken xedapen bat.

Lehenengo tituluan xedapen orokorrak ezartzen dira: kontzejua zer den zehazten da, beraren lurralde elementuak, biztanleria eta antolaketa ezartzen dira, eta lurraldeko toki erakundea dela aintzatesten da.

Bigarren tituluan kontzejuen ahalmenak eta eskumenak arautzen dira, bai lurralde erakunde baten botere publikoetan, aurreko tituluarekin bat etorritik, bai beren berezko interesen eremuan (hau da, kontzejuak esku har dezakeen eremuan).

Hirugarren tituluan kontzejuko karguak –lehendakaria eta kideak– hautatzeko araubidea ezartzen da. Titulu honetan Kontzejuetako Hauteskundearen 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren xedapenak bateratzen dira –foru arau hori indargabetuta geratzen da– eta berrikuntza batzuk sartzen dira; esate baterako, biztanle gehien dituzten kontzejuetako kideen kopurua mugatzen da. Gainera, batzorde kudeatzaileak izendatzeko, eratze eta aritzeko araubidea ezartzen da eta, beraz, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakia indargabetzen da, eta hauteskunde araubide osoa arauan bateratzen da.

Laugarren titulua luzeena da. Bertan kontzejuen araubide organikoa ezartzen da eta haien jarduna arautzen da. Zenbait kapitulu dauzka. Lehenengoan aurreko bi antolaketa moduak mantentzen dira: kontzeju irekia eta kontzeju itxia. Bigarrenean zenbait atal daude. Bertan kontzejuen organoen (lehendakaritza, kideak, auzo batzarra) araubide organikoa eta eskudantziak arautzen dira eta, berrikuntza gisa, lehenengoz arautzen da kontzejuetako karguen ordainsarien, asistentzien eta kalte-ordainen eta eskubideen sistema.

Horrez gainera, fede emailearen figura garrantzitsua arautzen da: izaera, hautapena eta eginkizunak.

Kapitulu honetan beste berrikuntza garrantzitsu bat ere arautzen da: lehendakaritzaren aurkako zentsura mozioa jarri ahal izatea (mozioa formalizatzeko, ezinbestekoa izango da beste hautagai bat aurkeztea).

Azkenean, titulu honetan kontzejuen jardun araubidea eta araubide juridikoa finkatzen dira, bai eta gehiengoen araubidea ere.

Bosgarren titulua kontzejuen ogasunari buruzkoa da: osagaiak zein diren zehazten da (zuzenbide publikoko diru sarreraren eta zuzenbide pribatuko diru sarreraren arteko bereizketa tradizionala mantentzen da) eta berrikuntza garrantzitsua sartzen da, Gobernu Ona Behatzeko Organoa, zeinaren helburua izango baita kontzejuen jarduera ekonomikoak eta tekniko juridikoak egiaztatzea, eskatuz gero.

Seigarren titulua ondasunen araubideari buruzkoa da: herri lurren aprobetxamenduak eta luberriak adjudikatzeko eskatzen den baldintza tradizionala mantentzen da, errotuta egotea, eta urtebetetik bi urtera igotzen da onuraduna izateko eskatzen den gutxieneko antzinatasuna, eta urtebeteko antzinatasuna mantentzen da egurketetarako.

Foru tradizio aratz bati jarraikiz, orain arte bezala onuraduna egurketa edo bizikidetzatza unitatea izango da, landa ingurunea bultzatzeko eta gure herrietan benetan bizi direnei laguntzeko. Gainera, auzolan zer den zehazten da eta, aurreko arauan ez bezala, xehetasunarekin arautzen da.

Zazpigarren tituluan beste toki erakunde batzuekiko harremanak arautzen dira, eta eskumenak direla eta udalen eta kontzejuen artean sortzen diren gatazkak ere bai.

Azkenik, zortzigarren tituluan arautzen da nola eratzen, aldatzen eta desegiten diren kontzejuak. Tradizio historikoa aintzat hartuta, kontzeju berriak sortzea ahalbidetzen da eta, 11/1995 Arauan ez bezala, xehetasunarekin arautzen dira kontzejuak aldatzeko eta desegiteko prozedurak, eta, behar denerako, desegiten diren erakundeen ondasunen oinordetza araubidea ezartzen da.

Arauaren amaieran zenbait xedapen gehigarri daude, baita xedapen iragankorrek ere, indargabetuko den arauan ezarritako kontzejuen araubide juridikoa eta jardun araubidea arau berrira egokitzeko.

Xedapen indargabetzaileetan kontzejuen foru arau hau onetsi ondoren indargabetuta geratuko diren arauak zehazten dira. Arau horietan arautzen dena foru arau berrian arautzen da.

Amaitzeko, azken xedapenean ezartzen da noiz sartuko den indarrean foru arau hau.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Definizioa

1. Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak herritarrek parte hartzeko berehalako tresna tradizionalak dira. Autonomia osoa dute beren eskumenez baliatuz beren interesak eta zerbitzua ematen dieten kolektibitateen interesak kudeatzeko.

2. Kontzejua lurralde izaerako toki erakundea da; berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dauzka, eta beraren jurisdikzioa udalerriarena baino lurralde barruti txikiagoa da.

3. Arabako Lurralde Historikoko kontzeju guztiak daude sartuta ofizialki onartutako udalerrietako batean.

2. artikulua. Osagaiak

1. Kontzejuaren osagaiak lurraldea, biztanleria eta antolaketa dira.

2. Kontzejuaren mugartea kontzejuak bere eskumenak erabiltzen dituen lurraldea da. Mugariak, ebakiek eta antzeko elementu mugatzaileak definitzen dute. Elementu mugatzaile horiek aldian-aldian egiaztatuko dira ohiko moduan.

3. Foru arau honetan ezartzen diren ondorioetarako, kontzejuaren biztanlerian auzotarrak eta egoileak daude.

a) Auzotarrak dira kontzejuaren mugartean bizi eta udal erroldan hala inskribatuta dauden pertsonak.

b) Egoileak dira udal erroldan inskribatuta ez egon arren kontzejuan etxebizitza daukaten pertsonak. Egoileek hitz egin ahal izango dute auzo batzarretan, baina ezingo dute botorik eman, ez eta kargu batean jardun ere kontzejuaren erakundean.

c) Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 53.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, administrazio batzarrek dagozkien udalei eskatu ahal izango diete kontzejuan erroldatutako pertsonen zerrenda, edo errolda horretan aldi jakin batean izandako aldaketak, iruzurrezkoak izan daitezkeen erroldatze-zantzuak ikusiz gero, udalari eska diezaizoten aipatutako legearen 72. artikuluan xedatutakoa ofizioz aplikatzeko.

4. Kontzejua bi eratara antola daiteke: kontzeju irekia edo kontzeju itxia. Batera zein bestera, lehendakaria egongo da, eta hari laguntzeko administrazio batzarra.

Foru arau hau indarrean sartu ondoren kontzeju berririk eratuz gero, kontzeju ireki modura eratu beharko dira nahitaez.

Kontzeju itxien kasuan, kontzejuaren izaera aldatzeko eskaera bat zuzentzen bazaio administrazio batzarrari, kontzejuko auzotarren bi herenek sustatua, administrazio batzarrak ezohiko bilkura deialdi bat sustatu beharko du, eskaera jasotzen denetik bost eguneko epean, baldin eta auzotar horiek bi urteko antzintasuna badaukate dagokien udal erroldan, aurre-aurreko bi urteetan, sinatzaile guztiak modu frogagarrian identifikatuta badaude eta eskaera behar bezala arrazoitua badago. Deialdi hori bilkura egin baino 72 ordu lehenago egin beharko da, eta kontzejuaren zentro sozialean egingo da. Gai-zerrendan kontzejuaren izaera aldatzeko (kontzeju itxia izatetik kontzeju irekia izatera igarotzeko) proposamenaren eztabaida eta bozketa jaso beharko dira. Emandako botoen gehiengo soila lortzen badu, proposamena onartutzat joko da. Bozketa horren emaitza kontuan hartuta, administrazio batzarrak herriarren borondatea errespetatu eta aintzat hartu beharko du, eta dagokion espediente hasi beharko du, foru arau honetako 66. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. artikulua. Egurketa unitatea eta aprobetxamenduak

Kontzejuaren errolda osatzen dute kontzejuan bizi direnen artean kontzejuari dagokion udalean erroldatuta daudenek.

Egurketa unitatea da kontzejuan etxebizitza daukan familia edo bizikidetzaren unitate independentea, kideetako bat udal erroldan inskribatuta dagoena.

Egurketa unitate bat egur loteen aprobetxamenduaren onuraduna izango bada, ezinbestekoa da gutxienez urtebeteko antzintasuna edukitzea udal erroldan.

Luberrien eta larreen aprobetxamendurako bi urteko antzintasuna beharko da gutxienez.

4. artikulua. Izena

1. Kontzejuen izen ofizialean jatorrizkoa (euskarazkoa edo gaztelaniazkoa) errespetatu beharko da, hizkuntza bakoitzeko grafia akademikoarekin.

2. Kontzejuen izen ofiziala ezartzeko, ordezteko edo aldatzeko prozeduran izapide hauek egingo dira gutxienez:

- a) Kontzejuak hasierako onespina eman.
- b) Hilabetez jendaurreko informaziorako agertu ALHAOn.
- c) Arabako Foru Aldundiaren nahitaezko txostena (ez da loteslea).
- d) Euskaltzaindiaren nahitaezko txostena (loteslea).
- e) Kontzejuak behin betiko onetsi.

3. Kontzejuaren izenaren aldaketa ofiziala izan dadin, hiru gauza gertatu behar dira: kontzejuak behin betiko onetsi behar du, Arabako Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatu behar da eta ALHAOn argitaratu behar da.

5. artikulua. Ikurrak, armarría eta zigilua

1. Kontzejuen ikur eta sinbolo bereizgarriak aukeratzeko, aurreko artikuluan izen ofiziala ipintzeko ezarritako prozedura bera aplikatuko da, baina artikulua horren bigarren apartatuaren d) letran aipatzen den nahitaezko txostena Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos erakundeak egin beharko du.

2. Armarririk ezartzen bada, haren osagaiak egitate historiko edo geografikoetan, kontzejuaren ezaugarrietan edo haren izenean oinarrituko dira. Nolanahi ere, heraldikaren arauak bete beharko dituzte.

3. Kontzejuaren zigiluan haren izena agertu beharko da gutxienez. Gainera, zigilua argitasunaren arauetara egokituko da, indarreko legeriarekin bat etorritik.

II. TITULUA. ESKUMENAK ETA AHALMENAK

6. artikulua. Ahalak

Arabako kontzejuak legeek udalerria baino lurralde eremuko txikiagoko toki erakundeentzat ezartzen dituzten ahalak dauzkate; hona:

- a) Autobabeserako ahala.
 - b) Arautzeko eta beren burua antolatzeko ahalmena.
 - c) Beren administrazio ekintzak ofizioz berraztertzeko ahala.
 - d) Kontzejuaren ondasunak eta eskubideak ikertzeko, mugatzeko, ofizioz berreskuratze eta, oro har, epaiketetan eta epaiketatik kanpo defendatzeko ahala.
 - e) Beren lurraldea ukitzen duten hirigintzako prozesuetan parte hartzeko ahala, indarreko legeriarekin bat etorritik.
- Gainera, beren lurraldea ukitzen duten hirigintza jarduketan eta bestelako guztien berri emateko eta jasotzeko ahala.
- f) Desjabetzeko ahala, legerian ezartzen denari jarraikiz.
 - g) Zergak eta finantzak kudeatzeko ahala, muga bakarra dela beren zergak ezin sortu izatea. Gainera, ogasun publikoari bere kredituetarako aintzatesten zaizkion hurrenkerak, lehentasunak eta gainerako prerrogatibak edukiko dituzte.
 - h) Zehatzeko ahala, ordenantzak eta araudiak onetsi ondoren.
 - i) Beste toki erakunde batzuekin lankidetzarako edo koordinaziorako hitzarmenak sinatzeko ahala.

7. artikulua. Eskumenak

1. Kontzejuak tradizioz bere gain hartu dituzten eskumenak erabiliko dituzte. Beren eskumena eremua inolaz ere ez da izango ordenamenduak udalerrira baino lurralde eremu txikiagoko toki erakundeei esleitzen diena baino txikiagoa. Hain zuzen ere, eskumen hauek dauzkate:

a) Kontzejuaren jabetzako erabilera edo zerbitzu publikoko instalazioak eraikitzea, handitzea, kontserbatzea eta konpontzea.

b) Landa bideak, mendiak, iturriak eta kontzejuaren erabilera eta zerbitzu publikoko gainerrako ondasunak zaintzea.

c) Beren ondarea (basoak barne) administratzea, kontserbatzea eta arautzea.

d) Kontzejuaren lurralde eremuan, haren interesen arabera obrak programatzea, proiektuak egitea eta burutzea, eta zerbitzuak ematea.

2. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, kontzejuak Arabako Foru Aldundiaren baimena beharko dute ondasunak besterentzeko, lagatzeko, zergapetzeko, trukatzeko eta erabiltzeko, baldin eta balioa kontzejuaren aurreko urteko diru sarrera arrunten ehuneko 30 baino gehiago bada.

3. Gainera, egin nahi dituzten besterentze guztien berri eman beharko diote aldezturik, nahiz eta balioa ez izan aurreko portzentaje hori baino gehiago, eta egin nahi dituzten ondasun higiezinaren erabilera lagapenen eta/edo errentamendu guztien berri ere eman beharko diote, Foru Aldundiak eragiketa legezkoa denez egiaztatu ahal izateko ez beste ezertarako.

Ondare eragiketa horiek eginik, kontzejuak ondasun higiezinaren besterentze, erabilera lagapen eta/edo errentamenduen berri eman beharko diote Foru Aldundiari, baldin eta ondorioz kontzejuak ezin izango badu erabili ondasuna bost urtez edo aldi luzeagoan, egindako eragiketa legezkoa denez egiaztatu ahal izateko ez beste ezertarako.

8. artikulua. Eskumenak eskuordetzea

1. Kontzejuak beste kontzeju batzuei, atxikita dauden udalari, kide diren kuadrillari, ermandadeei eta beste erakunde publiko batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete beren eskumenak.

2. Kontzejuak beste administrazio publiko batzuek eskuordetutako eskumenak erabili ahal izango dituzte. Eskuordetzearen bidez jasotako eskumenak ezin izango dira berriro eskuordetu.

3. Eskuordetzeak ondorioak sortuko baditu, hartzen duen erakundeak berariaz onartu beharko du.

4. Eskumena eskuordetzeko xedapena edo erabakia ALHAOn argitaratuko da. Bertan irismena, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko dira, eta eskuordetza ematen duen administrazioak beretzat gordetzen duen kontrola eta hark transferitutako baliabide pertsonalak, materialak eta ekonomikoak ere bai.

5. Kontzejuak kudeaketa gomendioaren tresna juridikoa erabili ahal izango dute jarduketara material edo teknikoak baliabide tekniko egokiak dauzkaten erakunde publikoen esku uzteko.

III. TITULUA. KONTZEJUKO LEHENDAKARIA ETA KIDEAK HAUTATZEA**I. KAPITULUA****Xedapen orokorrak****9. artikulua. Hautatu beharreko kideak**

1. Kontzejuko kideak auzotarrek hautatuko dituzte zuzeneko eta isilpeko sufragio unibertsal eta askearen bidez.

2. Kide hautagarrien kopurua hauteskundeetarako deialdia egiten denean kontzejuan dauden biztanleen kopuruaren arabera izango da, eskala honi jarraikiz:

500 biztanle arte: 3 kide.

501-750 biztanle: 5 kide.

751-1000 biztanle: 7 kide.

1.001 biztanletik gora: 9 kide.

Nolanahi ere, kide hautagarrien kopurua ezin izango da izan kontzejua atxikita dagoen udaleko zinegotzien kopurua baino handiagoa.

3. Kideak doan ariko dira karguan, eta beren agintaldia lau urtekoa izango da. Beste hauteskunde batzuetarako deialdia egiten denean, kargua utziko dute. Hala ere, kargua uzten duten kideek beren eginkizunetan jarraituko dute administrazio batzar berria eratu arte.

10. artikulua. Hautesleak eta hautagarriak

1. Kontzejuko hautesleak izango dira udal erroldan inskribatuta dauden adin nagusiko pertsona guztiak, baldin eta beren eskubide zibil eta politikoak erabiltzeko eskubide osoa badute.

2. Hautagarriak izango dira udal erroldan inskribatuta dauden adin nagusiko pertsona guztiak, baldin eta hurrengo artikuluan aipatzen diren hautaezintasun arrazoiak bat gertatzen ez bada.

3. Horretarako, hauteskundeetarako deialdia egiten denean ixten den udal errolda hartuko da kontuan.

11. artikulua. Hautaezintasun eta bateraezintasun arrazoiak

1. Kontzejuko kideak izateko hautaezinak dira:

a) Epai irmoz askatasunaz gabetzeko zigorrera kondenatuta dauden pertsonak, zigorra betetzen duten artean.

b) Zigor arloko legeriarekin bat etorritik, epai batez (irmoa ez bada ere) sufragio pasiborako eskubidea erabiltzeko desgaitzara edo desgaitza absolutu edo berezira edo enplegu edo kargu publikorako etetera kondenatutako pertsonak.

c) Eremu guztietako hauteskunde batzordeetako kideak.

d) Karrera judizialeko eta fiskaleko kideak, arlo eta instantzia guztietakoak, bake epaitegie-takoak barne, jardunean badaude.

e) Estatuaren segurtasun indar eta kidegoetako kideak eta Ertzaintzako kideak. Baita armada-dako kideak ere.

f) Erakundeari dirua zor dioten pertsonak (zuzenean zein modu subsidiarioan), premiamendu agindua bidali bazaie. Gainera, erakundearekin demandatzaile edo demandatu modura auzian dauden pertsonak ere bai.

2. Hautaezintasun arrazoiak bateraezintasun arrazoiak ere badira. Gainera, hauek ere ezin dira izan kontzejuko kideak:

a) Kontzejuen kontrako prozedura judizial edo administratiboetan alderdiak defendatzen edo ordezkatzan dituzten abokatuak eta prokuradoreak.

b) Arabako Foru Aldundiko, EAEko Administrazioako eta Estatuko Administrazioako kargudunak.

c) Kontzejuen zerbitzuan ari diren funtzionarioak eta langileak.

d) Kontzejuekin indarreko kontratua duten kontratistak eta haien azpikontratistak.

3. Kontzejuko lehendakari kargurako ez da bateragarria kontzejua dagoen udalerriko alkatea. Kontzejuko kide izateko, ordea, bada bateragarria udalerriko alkatea.

4. Aurreko apartatuan ezartzen denaren arabera norbait bateraezintasun arrazoietakoa batean gertatzen bada, kontzejuko karguari uko egin behar dio edo bateraezintasuna eragin duen egoera utzi behar du.

II. KAPITULUA

Hauteskunde antolaketa

12. artikulua. Hautesbarrutia

Hautesbarrutia kontzejuaren lurraldea izango da.

13. artikulua. Deialdia

1. Hauteskundeetarako deialdia Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak egingo du, ahaldun nagusiak proposatuta. Deialdia osorik argitaratuko da ALHAOn.

2. Deialdia ALHAOn argitaratzen denetik hauteskundeak egin arte ezin dira igaro berrogei egun baino gutxiago ez berrogeita hamar baino gehiago.

14. artikulua. Hauteskunde batzordea

Prozesuaren kontrola egiteko eskumena Arabako Lurralde Historikoko hauteskunde batzordeak edukiko du (batzorde hori. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legean arautzen da), eta horren erabakien aurka hauteskundeei auzi errekursoak aurkeztu ahal izango dira.

15. artikulua. Zerrenden publikotasuna

1. Hautesleen zerrenda, kasuan kasuko udaleko idazkaritzak ziurtatuta, deialdia argitaratu eta hurrengo bost egun naturaletan jendaurrean ipiniko da kontzejuaren argitalpenetarako erabili ohi den lekuan. Bertan hautesleen izen-abizenak agertuko dira. Gainera, zerrenda horri bozketaren egunera arte legezko adin nagusitasunera iristen diren pertsonen zerrenda erantsiko zaio.

2. Hautesleen zerrendan sartzearen edo ez sartzearen kontra errekursoa jarri ahal da hauteskunde batzordean, hura argitaratu eta hurrengo bost egun baliodunetan.

Hauteskunde batzordeak bost egun balioduneko epean ebatziko du, beharrezkotzat jotzen dituen edo alderdiek aurkeztu dituzten dokumentu bidezko eta lekuko bidezko frogen ondoren.

16. artikulua. Hautagaitzak, hautagaiak eta zerrenden argitalpena

1. Kontzejuko lehendakariak eta kide karguetarako hautagaitzak hauteskunde batzordeari aurkeztu behar zaizkio hautagaitza aldarrikatzeko eskaera baten bidez, hauteskundeen deialdia ALHAOn argitaratzen denetik hogeita bat egun baliodun igaro baino lehen.

2. Hautagaitzak banakakoak izango dira ondorio guztietarako, bozketa eta zenbaketa barne. Hauteskunde batzordeak zerrenda irekietan bilduko ditu hautagaiak, hurrenkera alfabetiko zorrotzean.

3. Hala ere, hautagaitzak egon arren, bozkatzeko eskubidea daukaten pertsonak hautagaitza aurkeztu ez duen zeinahi auzotar hautatu ahal izango dute, hautaezintasun arrazoiaren bat egon ezean.

Horrenbestez, hautesleek hautagaien aldeko botoa eman dezakete edo, bestela, berek nahi duten beste auzotar baten alde. Beraz, hautesle bakoitzak izen batzuk idatzi beharko ditu berriaz prestatutako boto paperean: zenbat kargudun hautatu behar diren, izen bat gutxiago.

4. Hautagaitzak aurkezteko epea amaitutakoan, ordenatutako hautagaien zerrendak berehala argitaratuko dira ALHAOn, hurrenkera alfabetikoan.

5. Zerrendetako irregulartasunak ofizioz edo alderdi batek eskatuta hauteman eta zuzendu ahal izango ditu hauteskunde batzordeak.

6. Halaber, hautagaitzarik aurkeztu ez duten kontzejuen zerrenda argitaratuko da.

III. KAPITULUA

Bozketa eta boto kontaketa

17. artikulua. Bozketa

1. Bozketa ezarritako egunean egingo da kontzejuaren aretoan edo ohiko bilera lekuan, goizeko hamarretatik arratsaldeko hirurak arte, kargua uzten duten lehendakaria eta kideak dauden mahai baten aurrean, fede emailea laguntzaile dutela.

2. Mahaia bozketa hasi baino ordubete lehenago eratuko da. Mahaiburua kargua uzten duen lehendakaria izango da.

3. Hautesle bakoitzak izen batzuk idatziko ditu berariaz prestatutako boto paper zuri batean: zenbat kargudun hautatu behar diren, izen bat gutxiago. Boto paperak, gutun azal ofizialetan bilduta, hautetsontzi edo ontzi garden, itxi eta zigilatu batean sartuko ditu mahaiburuak.

4. Gutun azala edo boto papera ofiziala ez bada, botoak ez du balioko. Halaber, baliogabeak izango dira edozein testu edo adierazpen sartu den edo borondatez edo nahita beste edozein aldaketa gertatu den boto paperetan emandako botoak.

5. Gutun azal baten barruan ez badago boto paperik, boto zuria izango da, baina balioduna, eta halakotzat joko dira hautagai baten aldeko adierazpenik ez dagoen boto paperak ere.

18. artikulua. Boto kontaketa

1. Bozketa amaitu ondoren, mahaikide guztiak aurrean daudela, mahaiburuak hautetsontzia irekiko du eta botoak kontatuko ditu. Egintza hau publikoa izango da.

2. Kontaketaren emaitza akta batean adieraziko da. Egintzan zehar gorabeherak gertatu badira, horiek ere aktan agertuko dira.

3. Akta mahaikide guztiek sinatu beharko dute. Gero mahaiburuak hauteskunde batzordeak udalerrian daukan ordezkariari emango dio eta horrek hauteskunde batzordeari helaraziko dio zehazten den moduan.

19. artikulua. Hautagaiak aldarrikatzea

1. Hauteskundearen ondoko bosgarren egun baliodunean Arabako Lurralde Historikoko hauteskunde batzordeak boto gehien lortu dituen aldarrikatuko du kontzeju bakoitzeko lehendakari, eta boto gehien lortu dituzten hurrengoak kontzejuko kide (behar beste).

2. Boto berdinketarik badago, zozketa bidez ebaztuko da.

3. Administrazio batzarra osatzen duten hautetsien aldarrikapena ALHAOn argitaratuko da.

4. Aldarrikapenaren ondoren egiten den edozein aldaketa Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio, argitaratu eta datuak behar bezala eguneratu daitezen.

20. artikulua. Kargua onartzea

1. Hauteskunde batzordeak izendapenaren berri emango die hautatuei, eta haiek uko egin ahalko diote hauteskunde batzordeari idazkia bidalita jakinarazpena jaso eta bost egun baliodunen barruan. Halaber, aurkezten diren erreklamazioak ebaztuko ditu.

2. Norbaitek izendapena onartzen ez badu, hauteskunde batzordeak boto gehien lortu dituen hurrengoa izendatuko du, aurreko prozedura berari jarraikiz.

21. artikulua. Administrazio batzarra eratzea

1. Administrazio batzar berria eratzeko bilera kontzejuko jarduneko lehendakariak deituko du hauteskundeak egin eta hogeitaz eguneko epealdiaren barruan.

Dena delakoagatik deialdia egin ezin bada, administrazio batzarra eratzeko bileraren deialdia berez ezarriko da hauteskundeak egin ondoko hogeigarren egun baliodunerako, eguerdiko 12etan, kontzejuaren egoitzan. Biler horretako burua kontzejua atxikita dagoen udaleko idazkaria izango da.

2. Eraketaren berri eman beharko zaio Arabako Foru Aldundiari, eta adierazi beharko zaio nortzuk diren kontzejuko karguetan ariko direnak (lehendakaria eta kideak), lehentasun hurrenkeran.

3. Administrazio batzar berria eratzeak jarduneko administrazio batzarra behin betiko azkentzea eragingo du.

4. Administrazio batzarreko kideek foru arau honi buruzko prestakuntza jaso ahal izango dute.

22. artikulua. Hautatutako kideek kargua ez onartzea

1. Kontzeju batean kidea izateko izendapena onartzen dutenak ez badira nahiko kargu guztiak betetzeko, Aldundiak beste hauteskunde batzuetarako deialdia egin beharko du hurrengo hiru hiletan.

2. Baldin eta bigarren hauteskundeetan izendapena onartzen dutenak ez badira nahiko kargu guztiak betetzeko, Arabako Foru Aldundiak batzorde kudeatzaile bat izendatuko du. Batzorde horretan administrazio batzarrean beste kide ariko dira. Batzorde kudeatzailea eratzen denean, kideak izateko proposatutako herritarren berariazko adostasuna agertu beharko da, uko egin ez dioten hautatuena barne.

3. Aurrekoa ezinezkoa bada, Arabako Foru Aldundiak kontzejua desegiteko prozedura hasi ahal izango du.

23. artikulua. Postu hutsak agintaldian

1. Baldin eta agintaldian kargu hautaturen batek uko egiten badio, hiltzen bada edo bateraezintasuna edo hautaezintasuna dakarren zerbait gertatzen bazaio, haren postua azken hauteskundeetan boto gehien lortu dituztenen zerrendako hurrengoari esleituko dio hauteskunde batzordeak.

Nolanahi ere, administrazio batzarreko kideak izango dira karguari uko egiten ez dioten hautatuak.

2. Dimisioaren kasuan, dimisioa idatziz eman beharko zaio auzo edo administrazio batzarrari. Kargudun batek uko egiten badio, hiltzen bada, desgaiturik gertatzen bada edo bateraezintasuna edo hautaezintasuna dakarren zerbait gertatzen bazaio, lehendakariak edo, halakorik ezean, lehenengo kideak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio hauteskunde batzordeari, eta hark, bidezkoa bada, boto gehien lortu dituen hurrengo hautagaia izendatuko du.

Lehendakariak uko egiten badio, hauteskunde batzordeari jakinarazi beharko dio.

3. Dena delakoagatik ez badago hutsik geratutako postuak betetzeko hautatu gehiagorik, hauteskunde batzordeak horren berri emango dio Foru Aldundiari, batzorde kudeatzailea izendatu dezan.

24. artikulua. Batzorde kudeatzailea

1. Hauteskunde batzordeak Arabako Foru Aldundiari administrazio batzarreko postu hutsak betetzeko inor ez dagoela jakinarazi ondoren Foru Aldundiak administrazio batzordeari eskatuko dio proposatu ditzala postu horiek betetzeko behar diren kontzejuko auzotarren izenak.

2. Horretarako, arloko eskumena daukan foru sailak foru agindu baten bidez kontzejuari eskatuko dio proposatu ditzala administrazio batzarrean ukoen ondorioz hutsik geratu diren postuak beteko dituzten auzotarrak, hautetsirik ez dagoela ikusirik.

3. Kontzejuak bere proposamena egingo du fede emailearen ziurtagiri baten bitartez (datu hauek agertu behar dira: eguna, ordua, gaia eta hautesleak) eta hori jaso ondoren Foru Aldundiak ebazpen baten bidez proposatutako auzotarrak izendatuko ditu administrazio batzarreko kideak izateko, proposameneko lehentasun hurrenkeraren arabera.

4. Kontzejuko karguren bat hutsik badago edo kideren batek karguari uko egiten badio, edo bi gauzak gertatzen badira, eta kargu horiek ezin badira bete aurreko zenbakian azaldutako prozeduraren bidez, edo kargudun guztiek uko egin badiote, toki erakundearen arloko eskumena daukan foru sailak batzorde kudeatzailea izendatuko du. Bertan administrazio batzarreko beste kide ariko dira, bai eta foru sail horretako burua eta kontzejua atxikita dagoen udaleko alkatea ere, gutxienez. Batzorde kudeatzaileak kontzejurako hurrengo hauteskundeak egin arte jardungo du.

5. Aurreko puntuan aipatutako batzorde kudeatzaileak administratzen dituen kontzejuetan, hurrengo hauteskundeetan ez badira hautatzen administrazio batzarra eratzeko behar beste auzotar, Foru Aldundiak kontzejua desegiteko prozedurari ekin ahal izango dio ofizioz.

IV. TITULUA. KONTZEJUEN JARDUNA

I. KAPITULUA

Kontzeju motak

25. artikulua. Jarduteko araubidea

Jarduteko araubidearen arabera Arabako kontzejuak honelakoak izan daitezke:

a) Kontzeju irekia: gobernu auzotar guztien batzarraren esku dago, administrazioa, berriz, administrazio batzar baten esku eta ordezkaritza lehendakaritzaren esku.

b) Kontzeju itxia: gobernu eta administrazioa administrazio batzar baten esku daude eta ordezkaritza lehendakaritzaren esku.

II. KAPITULUA

Gobernu eta administrazio organoak

26. artikulua. Gobernu eta administrazio organoak

1. Hauek izango dira kontzeju irekietako gobernu eta administrazio organoak:

a) Kontzeju irekiaren auzo batzarra.

b) Lehendakaritza.

c) Administrazio batzarra.

2. Kontzeju itxietan lehendakaritza eta administrazio batzarra egongo dira.

3. Kontzeju guztiek eduki behar dute beren fede emailea.

4. Kontzejuek beste organo edo kargu batzuk izendatu ahal izango dituzte foru arau honen arabera edo, bestela, beren usadio-ohituren edo tradizioen arabera (ordenantza arautzailean bildu behar dira).

27. artikulua. Kontzejuko kargudunen ordainsariak, asistentziak eta kalte ordainak eta esku-bideak

1. Kontzejuetako kargudun guztiak ohorez eta doan ariko dira; beraz, karguan aritzeagatik ez dute jasoko ordainsaririk, soldatarik, haborokinik ez antzekorik.

2. Aldiz, lehendakariak, kontzejuko kideak eta fede emaileak sariak jaso ditzakete kontzejutik edo administrazio batzarretik kanpoko bileretan benetan izateagatik (bileran izan direla frogatuz gero). Kontzejuko kide anitzeko organoen bilkura edo bileretan izateari dagokionez, hau da, auzo batzarraren edo/eta administrazio batzarraren bileretan izateari dagokionez, foru arau honen 38.1 artikuluan jasotakoaren arabera nahitaez egin behar diren urteko bilkurak –hiruhileko bakoitzeko bat– benetan egiteagatik soilik jaso ahal izango dute saria.

Bilera horietan izateagatik jasoko diren sarien zenbatekoa kontzejuko auzo batzarrek onetsiko du (kontzeju itxietan, administrazio batzarrek), eta inolaz ere ez da izango Arabako Foru Aldundiak foru arau honen lehenengo xedapen iragankorraren 2. puntuan aipatzen den foru dekretuan ezartzen duen zenbatekoa baino gehiago.

Pertsona bat kontzejuko kideaz gainera fede emailea ere bada, kargu bategatik bakarrik jaso ahal izango du bilera saria.

3. Gainera, aurrean aipatutako kargudunek eskubidea edukiko dute kalte ordaina jasotzeko karguan aritzeak eragiten dizkien gastuengatik: mantenu ordainak edo joan-etorrietako ordainak.

Joan-etorriengatik jasoko den zenbatekoa 40/2014 Foru Dekretuaren 13. artikuluan 2b) apartatuan finkatzen da (40/2014 Foru dekretua, abuztuaren 1ekoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena) edo horren ordezkotako arauan.

Nolanahi ere, gastu horiek frogagirien, ordainagirien edo fakturen bidez egiaztatu behar dira. Horrelakorik aurkeztu ezean, kontzejuko fede emaileak edo diruzainak ezin ordaindu izango ditu.

4. Kontzejuetako auzo batzarrek edo administrazio batzarrek kargudunek bileretan izateagatik jasotzen dituzten sariak eta kalte ordainak ezer erabaki aurretik baliagarri dagoen diruari buruzko txostena egin beharko da. Gainera, erabakiak osorik argitaratu beharko dira ALHAOn eta kontzejuaren iragarki oholean ipini beharko dira, herritar guztiek haien berri eduki dezaten.

5. Bilera sariak eta kalte ordainak kontzejuari eragiten dizkieten gastu guztien berri eman beharko da auzo batzarrean, eta horrekin batera urteko kontuak aurkeztu beharko dira.

6. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak, 18b) artikuluan xedatzen duenaren arabera, bileretan izateagatik jasotzen diren sariak lanaren etekinak dira eta, beraz, konturako atxikipenak aplikatu behar zaizkie. Horrengatik, kontzejuak kopuru horien gaineko konturako atxikipenak egin behar dituzte eta Foru Ogasunari ordaindu behar dizkiote.

7. Kontzejuetako kargudunek eskubidea edukiko dute lanetik irteteko karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeko behar den ezinbesteko denborarako, aurretik abisua emanda eta arrazoia azalduta, Langileen Estatutuaren 37.3d) artikuluan edo haien lan harremanaren izaera juridikoaren arabera aplikatu beharreko arauan ezartzen denarekin bat etorriz.

Ezinbesteko denbora da kargudunak kidea den organoen bilkuretan edo kargua dela eta parte hartzen duen batzordeen bileretan eman behar duena.

Lehen atala. Kontzeju irekiaren auzo batzarra

28. artikulua. Izaera eta bozketak

1. Auzo batzarra erakundearen organo gorena da. Kontzejuaren mugarteko adin nagusiko auzotar guztiek osatzen dute eta batzarburua kontzejuaren lehendakaria da.

2. Auzo batzarrean auzotarrek bertaratuta baino ezin izango dute eman botoa; botoa ezin zaio beste pertsona bati eskuordetu, ez transferitu, ez gaitu.

3. Ohiko bozketa modua eskua jasotzea izango da, kontzejuaren usadio-ohiturak aintzat hartuta. Nolanahi ere, pertsona batek edo batzuek gai edo erabaki batean bozketa ezkutukoa izatea eskatuz gero, ezkutuko bozketa egingo da.

29. artikulua. Auzo batzarren eskudantziak

Kontzeju irekiaren auzo batzarrek eskudantzia hauek edukiko ditu:

a) Kontzejuaren izen ofizialaren edo ikur bereizgarrien espedientea hastea eta horiek behin betiko onestea.

b) Kontzejuaren ordenantzak onestea.

c) Planak eta baldintza agiriak programatzea eta onestea, eta kontratuak adjudikatzea eta fakturak ordaintzea onestea, 3.000,00 eurotik gorakoak izanez gero.

d) Langileak kontratatzeako oinarriak eta irizpideak finkatzea eta onestea, eta haien ordain-sariak eta kalte ordainak finkatzea.

e) Fede emailea eta, behar denean, haren ordezkoa izendatzea eta kargutik kentzea. Gauza bera egitea kontzejuko beste kargu tradizional batzuekin ere.

f) Eskuordetutako eskudantziak erabiltzea onartzea.

g) Kontzejuaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa onestea.

h) Jarduera administratiboa egitea eta kontrolatzea, eta egintza judizialak egitea erabakitzea.

i) Lankidetzak hitzarmenak eta beste lankidetzak akordio batzuk onestea.

j) Erakundea aldatzeko edo desegiteko edo beraren izaera aldatzeko ekimena.

k) Kredituak onartzea, aurrekontuan kontsignaziorik ez badago, eta aurrekontuak, ordainarazpen ordenantzak eta kontuen zentsurak onestea. Kreditu eragiketak egitea.

l) Erakundearen ondasunak eta eskubideak administratzea eta artatzea.

m) Kontzejuak parte hartzen duen erakundeetan eta organoetan dauzkan ordezkariak izendatzea.

n) Erakundearen ondarea eskuratzea eta besterentzea, eta kontzejuaren ondasunen jabetza edo erabilera edozein tituluren bidez lagatzea, arau honen 7. artikuluan xedatzen denari jarraikiz. Kontzejuaren ondareko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorritik.

ñ) Lehendakariaren eta administrazio batzarraren ekintzak eta jarduketak bultzatzea, kontrolatzea eta fiskalizatzea.

o) Kontzejuko kideek proposatutako ekimen guztiak ebatzea, bere eskumenen barruan.

p) Zehapenak onestea eta ezartzea, administrazio batzarrak proposaturik.

q) Eskumen gatazka planteatzea.

r) Oro har, legeriak udalaren osoko bilkurari udalerriaren administrazioari dagokionez esleitutako eskudantzia guztiak, kontzejuaren eskumenen eremuan.

Bigarren atala. Lehendakaritza

30. artikulua. Izaera

1. Kontzejuaren lehendakaritza pertsona bakarreko organo betearazlea da, kontzejuaren legezko ordezkaritza dauka eta auzotarrek hautatuko dute arau honen III. tituluaren xedatzen denari jarraikiz.

2. Lehendakaria ez dagoenean, heriotza kasuan edo aldi batez gaixorik dagoenean, haren ordezkari kontzejuko lehenengo kidea ariko da.

3. Administrazio batzarreko kideek bere egitekoak betetzen lagunduko diote lehendakariari.

31. artikulua. Lehendakariaren eskudantziak

Lehendakariak egiteko hauek edukiko ditu:

a) Administrazio batzarraren eta, behar denean, auzo batzarraren bilkuretara deitzea eta haiekin buru jardutea, bilkuretako gaien zerrendak prestatzea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak bere kalitateko botoaz erabakitzea.

b) Administrazio batzarraren eta auzo batzarraren erabakiak betetzea eta betearaztea.

c) Erakundearen aurrekontua aplikatzea, haren kargurako ordainketak agintzea (kontzejuko kideen bilera sarienak eta kalte ordainenak izan ezik) eta bere kudeaketaren kontuen berri ematea egiten den hurrengo bilkuran.

d) Erakundearen ondarearen kontserbazioa zaintzea.

e) Landabideen, iturri publikoen eta mendien mantentzea eta kontserbazioa begiratzea.

f) Langileak kontratatzea auzo batzarrak edo administrazio batzarrak finkatutako oinarrien, irizpideen eta ordainsarien arabera, eta administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan aplikatu beharreko arautegia betez.

g) Administrazio batzarrean edo auzoa batzarrean aurkezten diren dimisioak edo ukoak ahalik azkarren jakinaraztea hauteskunde batzordeari.

h) Bandoak ematea bere eskumeneko eremuan.

i) Presazko kasuetan, ekintza judizialak abiaraztea edo ebazpen administratiboak ematea, eta, ondoren, egiten den lehen bilkuran horien berri ematea auzo batzarrari.

j) Bere eremuaren barruan, Toki Araubidearen Legeak udal alkateei ematen dizkien eskudantzia guztiak, horiei modu eskusiboan esleituta ez badaude.

k) Kontzejuaren ordezkaria izatea egintza ofizialetan eta beste erakunde batzuen aurrean.

l) Auzo batzarrak kudeaketa azkartu nahian baimentzen dituen ekintzak gauzatzea.

m) Auzolanen eta beste aprobetxamendu batzuen deialdiak egitea.

Hirugarren atala. Administrazio batzarra

32. artikulua. Izaera

Administrazio batzarra kontzejuaren administrazio organoa da. Gainera, kontzeju itxietan gobernu eta administrazio organoa ere bada.

Bi kasuetan, lehendakaritzari lagunduko dio titulu honetan ezartzen denari jarraikiz.

33. artikulua. Administrazio batzarraren eskudantziak

1. Administrazio batzarrak eginkizun hauek dauzka:

a) Kontzejuaren ohiko administrazio jarduera egitea.

b) Kontratazio espedienteak izapidetzea.

c) Erakundearen ondasunen eta eskubideen inbentarioa egitea eta eguneratuta edukitzea.

d) Lankidetza hitzarmenak eta lankidetza akordioak proposatzea eta izapidetzea.

e) Erakundearen urteko aurrekontuen aurreproiektua eta kontzejuaren ordenantzak prestatzea, auzo batzarrera bidaltzeko.

f) Kontzeju irekietan, urteko kontuak eta urteko aurrekontuaren likidazioa aurkeztea auzo batzarrari.

g) Kontzejuaren eskumeneko zehapen espedienteak izapidetzea, eta ebazpen proposamena bidaltzea auzo batzarrera.

h) Kontzeju itxietan, lehendakaritzaren jarduna kontrolatzea eta fiskalizatzea.

i) Oro har, kontzeju irekietan, erabaki proposamenak bidaltzea auzo batzarrera.

j) Kontzeju itxietan, fede emaila eta, behar denean, haren ordezkoa izendatzea eta kargutik kentzea.

k) 3.000,00 eurotik beherako fakturak ordaintzea onestea; hiru hilekoan 10.000,00 euro gehienez, kontzeju irekiaren kasuan.

2. Kontzeju itxietan, aurreko apartatukoak ez ezik, kontzeju irekietako auzo batzarrei dagozkien eskumenak ere edukiko ditu administrazio batzarrak.

Laugarren atala. Fede emailea

34. artikulua. Izaera eta hautapena

1. Fede emaileak kontzejuetako organoen idazkariaren eginkizunak betetzen ditu.

2. Kargu honetarako hautatzeko, adin nagusikoa eta kontzejuko auzotarra izan behar da.

Karguaren iraunaldian zehar kontzejuko auzotasuna galduz gero, kargudunak ezin izango du horretan jarraitu eta beste norbait izendatu beharko da.

3. Fede emailea, lehendakariak proposatuta, auzo batzarrak izendatuko du, administrazio batzar berria eratu ondoren egiten den lehenengo kontzejuan.

Kontzeju itxietan ere, lehendakariak proposatuta, administrazio batzarrak hautatuko du.

Bietan, hautapena gehiago soilaz egingo da.

4. Fede emailearen kargua eta lehendakaritza bateraezinak dira.

Kontzeju itxietan, fede emaileak hitza izango du, baina botorik ez, salbu eta aldi berean kidea bada.

5. Fede emailearen ordezkia izendatuko da. Dena dela, ordezkia titularra ez dagoenean edo gaixorik dagoenean baino ez da ariko karguan, betiere titularrak aldeztatik lehendakariari abisatuta.

Fede emailea aurrean dagoela egiten diren egintza guztietan eta hartzen diren erabaki guztietan horren berri adieraziko da.

6. Fede emaileak legeari eta zuzenbideari erabat loturik jardungo du bere eginkizunetan eta betebeharretan, objektiboa izango da karguan aritzean eta ardura handiarekin babestuko ditu kontzejuaren interesak.

7. Fede emailea arduratuko da karguetan ari direnen bilera sariak eta kalte ordainak kudeatzeaz eta kontrolatzeaz, gastuak edo bileretako asistentziak kide anitzeko organo egokiaren bilkuretan agiri bidez frogatu edo egiaztatu ondoren.

Kontzejuan diruzaina edo antzeko figura badago, bera arduratuko da zenbaki honetan arautzen diren egitekoez.

8. Auzo batzarrak (kontzeju irekietan) edo administrazio batzarrak (kontzeju itxietan) kargutik kendu ahal izango du fede emailea, botoen gehiago soilaz, interes gatazka dagoenean edo konfiantza galtzen denean.

35. artikulua. Eginkizunak

Fede emaileak eginkizun hauek edukiko ditu:

a) Auzo batzarraren eta administrazio batzarraren bilkuretara joatea.

b) Eskatuz gero, joaten den bileren akta egitea eta fede ematea, honako hauek laburbilduta: auzotarren, lehendakariaren eta kontzejuko kideen iritzia, usteak eta eragozpenak.

c) Ziurtagiriak egitea, lehendakariak ontzat emanda.

d) Kontzejuko akta liburuaz arduratzea.

e) Kontzejuaren akten liburua zaintzea, bai eta kontzejuaren agiriak eta espedienteak ere.

f) Karguetan ari direnen bilera sarien eta kalte ordainen ordainketak erregistratzea, frogatu direla egiaztatu ondoren. Kontzejuan diruzaina edo antzeko figura badago, bera arduratuko da letra honetan arautzen diren egitekoez.

Bosgarren atala. Lehendakariaren aurkako zentsura mozioa

36. artikulua. Zentsura mozioa

1. Lehendakaria kargutik kendu ahal izango da zentsura mozioaren bidez. Zentsura mozioa aurkezteko, izapidetzeko eta bozkatzeko arau hauek beteko dira:

a) Kontzeju itxietan, zentsura mozioa administrazio batzarreko legezko kideen gehiengo osoak proposatu behar du, gutxienez.

Kontzeju irekietan, zentsura mozioa auzotarren bi herenek proposatu behar dute gutxienez, eta horiek, betiere, aipatutako kontzejuari dagokion udal erroldan sartuta egon beharko dute, gutxienez urtebete lehenagotik.

Bi kasuetan, proposamenean ordezeko hautagaia zehaztu behar da. Hautagai hori kontzejuko edozein kide izan daiteke, eta beraren berariazko onarpena mozioa proposatzen duen idazkian agertu behar da.

b) Mozioaren proposamena kontzejua atxikita dagoen udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar da. Udal idazkariak administrazio batzarraren edo auzo batzarraren bilkurara deitu behar du (kasuan kasukoa, kontzejua nolakoa den) mozioa bozkatzeko, proposamena udal erregistroan sartu eta hurrengo egunetik hamabost egun pasatu baino lehen.

c) Proposatutako mozioa bozkatzeko bilkura balio osoz eratuta geratuko da honako hauek bertan badaude, gutxienez: deialdia egiten duen udaleko idazkaria (bilkurako burua izango da), fede emailea eta, kontzejua nolakoa den (itxia edo irekia), kontzejuko kideen edo auzotarren gehiengo (horietako bat ordezeko modura proposatzen den hautagaia izan behar da).

d) Mozioa bertaratutakoen gehiengo osoak onetsi beharko du.

e) Lehendakariaren aurkako zentsura mozioa onesteak berekin ekarriko du hura berez kargutik kentzea, baina ez administrazio batzarreko kidea izateari uztea.

2. Agintaldi bakoitzean zentsura mozio bat bakarrik aurkeztu ahal izango da.

3. Zentsura mozioa onetsi ondoko bost egunetan fede emaileak horren berri eman beharko dio Foru Aldundiari, eta Arabako Lurralde Historikoko hauteskunde batzordeari ere bai, horrek proposatutako hautagaia lehendakari aldarrikatu dezan eta, beharrezkoa izanez gero, administrazio batzarraren osaera berrantolatu dezan.

4. Batzorde kudeatzailea zuzendaritzan ari den kontzejuetan ezin izango da aurkeztu zentsura moziorik.

Seigarren atala. Jardun araubide orokorra

37. artikulua. Jardun araubide orokorra

Kontzejuko organoek foru arau honetan xedatzen denari jarraikiz jardun beharko dute edo, bestela, kontzejuko usadio-ohituren edo tradizioen arabera (ordenantzen koadernoan bildu behar dira, formatu fisikoan eta/edo bitarteko telematikoan).

38. artikulua. Bilkurak

1. Auzo batzarra edo administrazio batzarra, kontzejua nolakoa den (irekia edo itxia), ohi den tokian bilduko da. Gutxienez ohiko bilkura bat egin beharko da hiru hilean behin.

2. Lehendakariak egingo ditu auzo batzarraren zein administrazio batzarraren bilkuren deialdiak, honako datu hauek zehaztuta: lekua, data, ordua eta gaien zerrenda. Deialdia gutxienez 48 ordu lehenago argitaratuko da kontzejuaren iragarki taulan eta, ahal bada, elektronikoki

kontzejuaren web orrian, edukiz gero, edo kontzejuak ohi duen bezala edo erabakitzen duen bezala. Bilkurarako deialdia publikoa izan behar da nahitaez. Horretarako, iragarki taula espazio publiko irisgarrian egon behar da, eta agerian egon behar da beti.

3. Kontzeju itxietan, administrazio batzarren kasuan, aurrekoaz gainera, deialdia kide bakoitzari banaka jakinarazi beharko zaio posta arruntez edo posta elektronikoz, batzarrak banako jakinarazpenaren ordezkari kontzejuen ediktuen taulan iragartzea aski dela erabakitzen duenean izan ezik.

4. Auzo batzarraren eta administrazio batzarraren bilkuretarako deialdiak ezin dira izan deitutakoek benetan eta eraginkortasunarekin parte hartzerik ez duten orduetarako.

5. Bilkuretako gaien zerrendak egiteko eskudantzia lehendakariak dauka, foru arau honen 31. artikuluan a) letran xedatzen denaren arabera.

Hala ere, edozein auzotarrek eskatu ahal izango du gai bat sartzeko eguneko gaien zerrendan, eta lehendakariak nahitaez sartu beharko du, baldin eta modu sinesgarrian egiaztatzen bada eskaera deialdia baino bost egun lehenago aurkeztu dela. Nolanahi ere, bilkuraren hasieran gaien zerrendan sartu nahi diren gaiak aurkeztu ahal izango dira. Halakoetan, gaiak bilkurako gaien zerrendan sartzeari bertan dauden gehiengo soilak onetsiko da. Presaz sartzeari onesten ez bada, hurrengo bilkurako gaien zerrendan sartuko dira.

Gai zerrendako punturen batek ekonomia edo ondare arloko garrantzia badu, azaldu egingo da zer den, auzotarrek hobeto balora dezaten.

6. Artikulu honen lehenengo apartatuan auzo batzarraren eta administrazio batzarraren bilkura egiteko lekuak xedatzen dena gorabehera, aparteko kasuetan, eta toki erakundearen arloko eskumena daukan foru sailari idatziz eskatu ondoren, bilkura baliabide telematikoen bidez egin ahal izango da, pandemia edo bestelako hondamendiren bat dela eta komenigarria izanez gero.

Bilkura telematikoa balioz eratu eta egin ahal izateko, foru sail eskudunaren berariazko baimen idatzia beharko da.

39. artikulua. Bilkuren publikotasuna eta grabaketa

1. Auzo batzarraren bilkurak publikoak izango dira eta grabatu ahal izango dira gertatzen dena jasota geratzeko. Horretarako, irudia eta/edo soinua erreproduzitzea ziurtatzen duen euskarri batean erregistratuko dira.

2. Bilkura grabatzen denean, horren berri emango zaie bertan diren pertsona guztiei, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (edo horren ordezkari arau aplikagarriak) xedatzen denarekin bat etorriz. Lege horretan eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legean ezarritako gainerako baldintza formalak edo prozedurazkoak beteko dira.

3. Kontzeju arduratuko da datuak gordetzen eta tratatzen diren fitxategiaz, eta lehendakariak zuzenean artatu eta kontrolatuko ditu, fede emaileak lagunduta.

40. artikulua. Quoruma

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren kontzeju organoak lehen deialdian behar bezala eratuta geratzeko, gutxienez eskubide osoko kideen erdiak eta bat gehiago bildu beharko dira, eta bilkuran nahitaez egon beharko dira lehendakaria, kontzeju kide bat eta fede emailea edo haien legezko ordezkariak.

2. Bigarren deialdian, bilkura ordu erdi geroago egingo da eta kontzeju itxiko administrazio batzarra behar bezala eratuta geratzeko da honako hauek bilduz gero, gutxienez: lehendakaria, kontzeju kide bat eta fede emailea. Kontzeju irekiko auzo batzarra behar bezala eratuta geratzeko, gutxienez auzotar bat egon beharko da bilkuran.

3. Quorum hori bilkura osoan zehar mantendu beharko da.

41. artikulua. Bilkuren deialdi berezia

1. Kontzejuko organoko, auzo batzarreko edo administrazio batzarreko eskubideko kideen heren batek gutxienez idatziz eskatuz gero, lehendakariak deialdia egin beharko du eskaera egin eta hurrengo egunetik zazpi egun natural igaro aurretik biltzeko.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den eskaeran bilkuran eztabaidatu beharreko gaiak eta kontuak proposatu beharko dira, eta lehendakariak nahitaez sartu beharko ditu bilkurako gaien zerrendan.

3. Lehendakariak ez badu bilkurara deitzen lehenengo apartatuan adierazitako epealdiaren barruan, deialdiaren proposatzaileek deialdia egiteko eskatu ahal izango diote kontzejua atxikita dagoen udaleko idazkariari, lehenengo apartatuko epealdia amaitu ondoko zazpi egun naturalen. Kasu horretan, kontzejuko organoa behar bezala eratzeko behar den quoruma betetzat jotzeko, ez da beharrezkoa izango lehendakaria bilkuran izatea. Udaleko idazkaria izango da, deialdiaren egile gisa, bilkurako burua.

III. KAPITULUA**Gehiengoaren araubidea****42. artikulua. Gehiengoaren araubidea**

1. Oro har, kontzejuen erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengo soiluz hartuko dira. Gehiengo soilak dagoen botoak ezezkotzat baino gehiago direnean.

2. Bildutako auzotarren bi herenen botoak behar dira gai hauen gaineko erabakiak hartzeko:

a) Kontzejua aldatzeko eta ezabatzeko prozedura eta haren izaera aldatzeko prozedura onestea.

b) Kontzejuaren izena eta ikurrak aldatzea.

c) Zerbitzu ermandadeak eta partzuergoak sortzea, aldatzea, desagitea edo haiei atxikitzea.

d) Eskumenen erabilera beste administrazio batzuei eskuordetzea.

e) Kreditu eragiketak onestea.

f) Zerga baliabideak ezartzea eta antolatzea.

g) Ondasunak besterentzea, haien kalifikazio juridikoa aldatzea edo administrazio batzuei doan lagatzea.

h) Lehendakariaren aurkako zentsura mozioa sustatzea.

i) Kontzejuaren ordenantzak onestea.

j) Araudi organikoa eta/edo haren aldaketak onestea.

k) Udal eskumenekin gertatzen den bezala, gehiengo kualifikatua behar den gainerako gaiak.

IV. KAPITULUA**Prozedura eta araubide juridikoa****43. artikulua. Dokumentazioa eta espedienteak zaintzea**

Administrazio batzarrek bere esku dauden agiriak eta espedienteak zaindu, antolatu, sailkatu eta katalogatuko dituzte. Agiriak zaintzeko ardura fede emaileak edukiko du.

Amaitutako espediente guztiak nahitaez gorde behar dira kontzejuaren egoitza fisikoan.

44. artikulua. Espedienteak

1. Administrazio espedienteak administrazio ebazpenaren aurrekari eta oinarri diren agiri eta jarduketan eta hura betearazteko eginbideen multzo ordenatua da.

2. Espedienteak egiteko ardura fede emaileak edukiko du. Horretarako, behar diren agiri, froga, irizpen, dekretu, erabaki, jakinarazpen eta gainerako eginbide guztiak gehituko dizkie.

3. Espedienteak dokumentu fisikoan egin beharko dira, baina baliabide telematikoak erabil daitezke horiek konfiguratzeko.

4. Espedientea egiteko, lehendakariaren oniritzia beharko da.

45. artikulua. Interesdunak

Administrazio espediente batean alderdi interesduna direnek eskubidea dute noiznahi jakiteko zertan den haren izapidetzea; horretarako, fede emaileari eskatu ahal izango diote informazioa. Gainera, fede emailea espedienteetan bertaratu ahal izango da, berak eskatuta, behin betiko ebazpena ematen ez den bitartean.

46. artikulua. Errekusatzea

Halaber, interesdunek espedientea izapidetzen edo instruitzen duen karguduna errekusatu ahal izango du administrazio prozedura arautzen duen legerian ezartzen diren arrazoiengatik.

47. artikulua. Jakinarazpenak

Interesdunei beren eskubideak edo interesak ukitzen dituzten ebazpenak jakinaraziko zaizkie. Jakinarazpen horiek araubide erkideko administrazio prozedurako arauetan ezartzen den moduetan egin ahal izango dira.

Jakinarazpen idazkian honako hauek agertu behar dira gutxienez: egintzaren edo erabakiaren testu osoa (administrazio bidean behin betikoa den ala ez zehaztuta) eta, behar denean, haren aurka aurkez daitezkeen errekurtsoak, zer organoren aurrean aurkeztu behar diren eta horretarako dagoen epealdia, eta interesdunek nahi dituzten gainerako errekurtso guztiak aurkeztu ditzaketela.

48. artikulua. Administrazio prozedura erkideari eta sektore publikoko araubide juridikoari buruzko legeetara bidaltzea

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek nahitaez bete behar dute 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkideari buruzkoak, eta 40/2015 Legeak, sektore publikoko araubide juridikoari buruzkoak, xedatzen dutena, horien eremu subjektiboan baitaude, lege horien 2.1 c) artikuluan ezartzen denari jarraikiz.

V. KAPITULUA

Aktak, liburuak eta agiriak

49. artikulua. Aktak

1. Fede emaileak auzo batzarraren eta administrazio batzarraren bilkura guztien aktak egin beharko ditu.

Nolanahi ere, azken bilkurako akta jakinarazpenen ohiko lekuan argitaratuko da.

Administrazio batzarreko edo auzo batzarreko kideek hamabost egun naturaleko epealdia edukiko dute akta onespenerako ipini aurretik haren zirriborroa aztertzeko eta, nahi izanez gero, egokitzen jotzen dituzten eragozpenak adierazteko.

Bilkura bakoitzeko akta hurrengo bilkuraren hasieran onetsi beharko da, eta fede emaileak eta, gutxienez, kide batek sinatu beharko dute, hartara eragotzi gabe kontzejuko usadio-ohiturek eta ordenantzek xedatzen dutena.

2. Kontzejuetako organoen akta guztiak auzotarren eta interesdunen eskura egongo dira, lehendakariari edo fede emaileari idatziz eskatu ondoren; haiek eskaera, ikustaldia edo/eta kopia jasotzen denetik bost egun igaro baino lehen eman beharko dizkiete aktak.

50. artikulua. Akten edukia

1. Aktetan datu hauek agertu behar dira: bilkura non eta noiz (urtean, hila eta eguna) egin den, zenbat kide dauden organoan, nor den lehendakaria eta nortzuk bildu diren, eta zer gai aztertu den (eguneko gaien zerrenda). Datu horien ondoren bilkurako eztabaiden, bozketen emaitzen eta hartutako erabakien laburpen zehatza egin behar da, eta bilkura zer ordutan amaitu den adierazi behar da.

Ezkutuko bozketaren kasuan, boto-emaileen izena eta bozketaren emaitza jasoko dira.

2. Aktan inskribatzen ez diren erabakiak ez dira baliodunak izango. Aktei ez zaie inolaz ere erantsiko bilkurara bertaratuek sartzeko eskatzen ez duten beste agiririk ez materialik.

50 bis artikulua. Akta liburua

Akta liburuko orriak zenbatuta eta koadernatuta egon beharko dira, orri bakoitza lehendakariaren sinadurarekin eta erakundearen zigiluarekin legeztatu beharko da, eta lehen orrialdean, fede emaileak sinatutako zabaltzeko eginbidearen bidez, orrialdeen kopurua eta erabakiak inskribatzen hasten den eguna adierazi beharko dira.

Nolanahi ere, bide mekanikoak edo elektronikoak erabili ahal izango dira aktak transkribatzeko. Kasu horretan, fede emailea orri solte guztien segurtasunaz arduratuko da, eta debekatuta egongo da haien ordena eta edukia aldatzea. Orri solteak koadernatu egingo dira akta liburua osatzeko behar beste betez gero.

51. artikulua. Ziurtagiriak

Kontzejuen egintzen, erabakien eta ebazpenen ziurtagiriak fede emaileak egingo ditu, lehendakariak ontzat emango ditu eta erakundearen zigilua ezarriko zaie.

52. artikulua. Ordenantzen eta araudien publikotasuna. Gardentasuna

1. Kontzejuak onesten dituzten ordenantzak eta araudiak ALHAOn argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean sartuko haien testu osoa guztiz argitaratu arte. Salbuespena: zerga ordenantzak toki ogasunak arautzen dituen foru arauan xedatzen den bezala argitaratzen eta sartzen dira indarrean.

2. Nolanahi ere, arau horien testuak auzotarren eskura egongo dira kontzejuaren egoitza administratiboan edo, edukiz gero, kontzejuaren web orrian, eta kopia emango zaie eskatzen duten auzotarrei.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen den argitalpenaz gainera, kontzeju guztiek onetsitako ordenantzak eta kontuak egoitza elektronikoan argitaratu beharko dituzte –edukiz gero–, eta toki erakundearen arloko eskumena daukan foru sailaren gardentasunaren atarian ere bai.

52 bis artikulua. Gardentasuna eta baliabide telematikoaren erabilera

1. Kontzejuak behartuta daude gardentasunari buruzko foru araudia betetzera, aplikatzekoa den heinean, bi alderditan: publikotasun aktiboari dagokionez eta herritar guztiek daukaten informazio publikorako irispide eskubideari dagokionez.

2. Administrazio batzarrak auzotarrekin duen barne-funtzionamenduan, gainerako administrazio publikoek dituzten betebeharrak berberak ditu bitarteko telematikoak erabiltzeko dagokionez.

V. TITULUA. KONTZEJUAREN OGASUNA**53. artikulua. Osaera**

1. Kontzejuaren ogasunaren osagaiak dira eduki ekonomikoa duten kontzejuaren titulartasuneko eskubide eta betebeharrak guztiak.

2. Kontzejuaren ogasunean baliabide hauek egongo dira:

- a) Haien ondaretik sortutako diru sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerako guztiak.
- b) Bere eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik jasotzen dituen tasak.
- c) Kontzejuaren eskumeneko obrak egiteko edo zerbitzuak ezartzeko, zabaltzeko edo hobetzeko egiten diren auzotarren ekarpenak eta ekarpen bereziak.
- d) Prezio publikoak.
- e) Foru araudiaren arabera kontzejuen alde diren beste erakunde publiko batzuen zergetako partaidetzak eta errekarquak, batez ere kontzejua atxikita dagoen udalari dagozkion zergetakoak.
- f) Dirulaguntzak eta beste diru ekarpen batzuk.
- g) Kreditu eragiketen ondoriozkoak.
- h) Bere eskumeneko isunen eta zehapenen emaitza.
- i) Udalaren ondare sarreretako partaidetza, edukiz gero.
- j) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

k) Foru Aldundiak beren xedeak betetzeko eskumenak finantzatzeko egiten dizkieten ekarpenak, Ekonomia Itunaren 48. eta 51. artikuluen arabera (hurrenez hurren, toki erakundeek finantza zaintza eta tributu itundugabeak direla-eta izandako diru-sarreretatik Euskadiko toki erakundeei eman beharrekoa).

3. Kontzejuak auzolanak ezarri ahal izango dituzte foru araudian eta kontzeju bakoitzaren araudian xedatzen denaren arabera. Auzotar bat ez bada auzolanera bidezko arrazoirik gabe edo ordezkioa bidali gabe, behar den ondare prestazioa eman beharko du, kontzejuaren ordenantzen arabera. Horren ordainketa betearazpen bidetik eskatu ahal izango da.

54. artikulua. Printzipioak eta jarduteko modua

1. Kontzejuaren ogasuna egonkortasunaren, finantza jasangarritasunaren eta aurrekontu orekaren printzipioek gidatuko dute, eta helburuak nahitaez izan behar dira erakundearen defizita ahalik eta txikiena izatea eta aurrekontu oreka edo superabita lortzea.

2. Kontzejuak epe luzeko kreditua eskatu ahal izango dute inbertsio eragiketarak finantzatzeko, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauari men eginez. Nolanahi ere, Foru Aldundiaren baimena beharko da kreditu eragiketarak hitzartzeko.

3. Kontzejuak ezin izango dute eragiketarik finantza deribatuekin.

4. Kontzejuak ezin izango dute sortu erakunde autonomorik, enpresa erakunde publikorik, kapitaleko sozietate publikorik ez fundaziorik.

55. artikulua. Zuzenbide pribatuko diru sarrerak

1. Zuzenbide pribatuko diru sarrerak izango dira:

a) Denetariko ondasunen eta eskubideen emaitzak, errentak eta interesak, indarreko legeriaren arabera ondarekoak badira, eta ondasun eta eskubide horiek besterenduta eta zergapetuta lortzen diren diru sarrerak.

b) Herri ondasunen aprobetxamenduek sortzen dituzten diru sarrerak.

c) Herritarrek eman eta kontzejuak onartutako denetariko dohaintzak, jarauntsiak, legatuak eta sorospenak.

2. Ondareko ondasunak eta eskubideak besterentzearen eta zergapetzearen ondoriozko diru sarrerak ezin izango dira erabili gastu arruntak finantzatzeko.

55 bis artikulua. Errekarguak

Kontzejuak aldi baterako errekareruak ezarri ahal izango dituzte ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren gainean, xede hauetarako:

a) Hiri, landa edo abeltzaintza obrak edo hobekuntzak finantzatzeko.

b) Obra eta zerbitzu orokorrak finantzatzeko.

c) Arestian adierazitako helburuetarako erakundearekin hitzartutako maileguen eta jesape-nen amortizazioak eta interesak ordaintzeko.

Aldi baterako errekareruak aplikatzea bateraezina izango da zerga oinarri berberaren gaineko eta xede berberetarako kontribuzio bereziekin.

56. artikulua. Toki ogasunen foru arauaren II. titulura bidaltzea

Kontzejuen ogasunei Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauaren II. tituluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezartzen dena aplikatuko zaie, kasuan kasuko egokitzapenak eginda. Horregatik, kontzejuen ogasunek tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte.

57. artikulua. Kontabilitatea eta urteko kontuak

1. Kontzeju bakoitzaren urteko mugimendu ekonomikoa kontu liburu batean bilduko da. Liburu hori eredu ofizialekoa izan behar da eta eginbideak behar bezala egin behar dira.

2. Kontu horietan urtean, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arte, izan diren diru sarrera eta gastu guztiak agertu behar dira.

3. Urteko kontuak hurrengo urteko martxoaren 1erako onetsi behar ditu kontzejuak. Gero, hamabost egun naturalez jendaurrean ipiniko dira, erreklamazioak egin ahal izateko, iragarkia kontzejuaren aretoan, horretarako erabili ohi den lekuan edo, edukiz gero, kontzejuaren egoitza elektronikoa jarri ondoren.

4. Aurrean adierazitako aldian bidezko interesdunek idatziz egiten dituzten erreklamazioei baino ez zaie kasu egingo. Erreklamazioak kontzejuak ebatzi beharko ditu.

5. Urteko kontuen kopia eta haien kontra aurkeztutako erreklamazioen eta horien ebazpenen kopia Arabako Foru Aldundiari bidali beharko zaizkio hurrengo urteko maiatzaren 1erako.

Kontuak, onetsi ondoren, kontzejuko iragarki taulan argitaratu beharko dira, bai eta, ahal bada, modu elektronikoa ere, kontzejuaren web orrian, edukiz gero.

6. Kontu liburuak lehendakariak gordeko ditu.

7. Bankuko kontuak kontzejuaren izenean egon behar dira, eta haietan dauden funtsak ezin izango dira erabili lehendakariak eta fede emaileak edo diruzainak, kontzejuan figura hori izendatuta badago, batera sinatu ezean.

8. Kontzeju itxiaren kasuan, administrazio batzarrak, urtero, auzotarren bilera deitu beharko du, onartutako urteko kontuen egoera auzotarrei aurkeztu eta azaltzeko. Lehendakariak egingo du deialdia, honako datu hauek zehaztuta: bileraren lekua, data, ordua eta gaien zerrenda. Deialdia gutxienez zazpi egun lehenago argitaratuko da kontzejuaren iragarki taulan eta, ahal bada, elektronikoki kontzejuaren web orrian, edukiz gero, edo kontzejuak ohi duen bezala edo erabakitzen duen bezala. Bilkurarako deialdia publikoa izan behar da nahitaez.

58. artikulua. Gobernu Ona Behatzeko Organoa

1. Gobernu Ona Behatzeko Organoa sortzen da. Organo hori Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen finantza zaintzari eta lege aholkularitzari lotutako eginkizunak esleituta dauzkan sailari atxikita egongo da.

2. Gobernu Ona Behatzeko Organoak helburu hauek edukiko ditu: kontzejuen jarduera ekonomikoa bideratzea eta egiaztatzea, eta hartzen dituzten erabakiak legezkoak diren egiaztatzea, administrazio batzarrak edo kontzejua atxikita dagoen udalerriko erroldan inskribatuta dauden auzotarren ehuneko 25ek eskatuz gero.

3. Gobernu Ona Behatzeko Organoak honako gai hauetan esku hartu ahal izango du: aurrekontuak eta haien likidazioa, kontuak eta diru sarrerak eta gastuak. Horretarako, aldi jakinei edo espediente, gai edo prozedura jakinei buruzko txostenak edo irizpenak egin ahal izango ditu.

4. Eremu juridiko-administratiboan, administrazio batzarrak edo kontzejua atxikita dagoen udalerriko erroldan inskribatuta dauden auzotarren ehuneko 25ek beste bi Gobernu Ona Behatzeko Organoari eskatu ahal izango dio egin dezala txostena hartu nahi dituen edo hartu dituen erabakiak zuzenbidearekin bat datozen ala ez argitzeko, bai eta egindako administrazio jarduketa jakin batzuei buruz ere.

VI. TITULUA. ONDASUNEN ARAUBIDEA

59. artikulua. Ondasun motak

1. Kontzeju baten ondarean bere ondasun, eskubide eta akzio guztiak daude.
2. Kontzejuen ondasunak jabari publikokoak edo ondarekoak dira.
3. Erabilera edo zerbitzu publiko baterako diren ondasunak jabari publikokoak dira. Herri ondasunak dira kontzejuaren titulartasunekoak izanik auzotar guztiek aprobetxatu ahal dituztenak.
4. Ondarekoak edo propioak dira kontzejuarenak izanik erabilera publikorako ez herri erabilerarako ez direnak eta zerbitzu publiko bati atxikita ez daudenak.

60. artikulua. Ondasunen eta eskubideen inbentarioa

1. Legeria orokorrean eta, zehazkiago, Toki Erakundearen Ondasunen Araudiaren 17. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren arabera, kontzejuek beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egin behar dute, haien izaera edo eskuratzeko modua gorabehera.
2. Kontzeju bakoitzak bere inbentarioaren kopia edukiko du, eta beste kopia bat toki erakundearen arloko eskumena daukan foru sailera bidali beharko du.
3. Kontzejuaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa haren egoitzan egon beharko da, eta hori zaintzeaz fede emailea arduratuko da.

61. artikulua. Aprobetxamenduen onuradun diren familia unitateak

1. Landa, ondare, herri, luberri eta larre izaeradun ondasun higiezinaren aprobetxamenduen onuradunak izango dira titularrak baldintza hauek betetzen dituen familia unitateak:
 - a) Adin nagusikoa, adingabe emantzipatua edo xede horretarako beharrezkoak diren laguntza-neurriak dituzten pertsonak izatea, edo egoitza soziala kontzejuaren mugartean duen pertsona juridikoa izatea, helburu nagusitzat nekazaritza aprobetxamendu horiek ustiatzea duena eta, gutxienez, kapital sozialaren ehuneko 50 duten bazkideen ehuneko 50 kontzejuan erroldatuta daukana; horretarako, dagokion udal-errolda hartuko da kontuan.
 - b) Udal erroldan auzotar modura inskribatuta egotea gutxienez bi urteko antzinatasunarekin, nekazari gazteen kasuan izan ezik; kasu horretan, erakunde titularrak antzinatasunaren betekizuna salbuetsi ahal izango du.
 - c) Familia unitateko kide guztiak egunean egotea kontzejuaren auzolanetan eta kanonen eta ordainarazpenen ordainketan.
 - d) Ustiapen eta aprobetxamendu zuzena edukitzea.

2. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, mendien foru arauan arautzen diren aprobetxamenduetan, hain zuzen ere luberrien aprobetxamenduetan, foru arau horren 49. artikulua xedatzen dena aplikatuko da eta larreen aprobetxamenduetan arau beraren 46. artikuluan ezartzen dena.

3. Ondare ondasunen aprobetxamenduak enkante publikoaren bidez adjudikatu beharko dira, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduak agintzen duen bezala. Auzotarrek lehentasunez erosteko eskubidea edukiko dute, hura adjudikatu eta bost eguneko epealdiaren barruan, adjudikazioan ezartzen diren baldintzekin eta zenbatekoarekin. Auzotar batzuek erosi nahi badute lehentasunez, zozketaz adjudikatuko da.

4. Egur loteen aprobetxamendurako, beharrezkoa izango da egurketa unitateak edo haren kideetako batek gutxienez urtebeteko antzintasuna edukitzea udal erroldan.

62. artikulua. Auzolanak

1. Kontzejuek auzolanak ezarri ahal izango dituzte. Horretarako, ordenantza bat onetsi beharko dute.

2. Auzolana kontzejua, beraren zerbitzuak eta beraren ondasunak hobetzeko edo artatzeko egin beharreko prestazio pertsonala edo tresna bidezko prestazioa da. Helburua kontzejuko gizarte kohesioa sendotzeko lan errazak egitea izan behar da, hain zuzen ere kontzejua era bilera edo zerbitzu publikorako ondasunak artatzeko, konpontzeko, garbitzeko edo hobetzeko.

Nahitaezko prestazio pertsonala denez gero, auzolana egin behar dutenek inolaz ere ezin dute jaso ordainsaririk.

3. Lehendakariari dagokio auzolanaren deialdia egitea. Kontzeju irekietan, auzo batzarrari dagokio auzolana onestea; kontzeju itxietan, aldiz, administrazio batzarrari dagokio.

4. Auzolan bat egitea onetsi ondoren lehendakariak gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko du deialdia. Deialdian nahitaez zehaztu behar da zein den helburua eta zergatik den beharrezkoa.

5. Auzolanera deitzen duten kontzejuek hartan jardun behar duten pertsonen babesa formalizatuko dute. Horretarako, istripu arriskuak eta istripuen ondoriozko kontingentziak estaltzen dituen aseguru hitzartu beharko dute, eta estalduraren zenbatekoak poliza sinatzean edo berritzean zuzenbidearen arabera bidezkoak direnak izan beharko dira.

VII. TITULUA. HARREMANAK BESTETOKI ERAKUNDE BATZUEKIN

I. KAPITULUA

Toki erakundeak

63. artikulua. Harremanak beste toki erakunde batzuekin

1. Kontzejuek, beste toki erakunde batzuei dagokienez, honako betebeharrak hauetan oinarrituko dituzte elkarrekiko harremanak: elkarri informazioa ematea, lankidetzan aritzea, koordinatzea, baliabideak eraginkortasunez kudeatzea, erantzukizuna, bermea eta berdintasuna herritarren eskubideak baliatzean eta elkarren eskumen eremuak errespetatzea.

2. Udalen eta kontzejuen artean edo kontzejuen artean gertatzen diren eskumen gatazkak Foru Aldundiak ebatziko ditu gatazkan dauden erakundeak entzun ondoren, tokiko araubidearen oinarritzko legerian xedatzen denari jarraikiz.

63 bis artikulua. Kontzejua eta hura kide den udalaren arteko informazioa eta lankidetzak

1. Kontzejuek eskubidea dute beren interes eskusiboko gaietan dagokien udalak erabakitako jarduketan eta haien jarraipenaren berri izateko.

2. Eskubide hori bermatzeko, udalak eta udal mugartearen barruan dauden gainerako kontzejuek alde biko edo alde anitzeko batzorde bat sortu ahal izango dute, lankidetzarako modu gisa.

II. KAPITULUA

Beste erakunde edo eragile batzuk

63 ter artikulua. Elkartzeko eskubidea

Kontzejuei aitortzen zaie Arabako Lurralde Historikoko beste toki erakunde edo eragile batzuekin elkartzeko edo hitzarmenak egiteko eskubidea, dela beren interes legitimoak defendatzeko, dela beren eskumeneko obra eta zerbitzu jakin batzuk elkarrekin egiteko.

VIII. TITULUA. KONTZEJUAK ERATZEA, ALDATZEA ETA DESEGITEA

I. KAPITULUA

Kontzeju berriak eratzea

64. artikulua. Kontzejuak eratzea

1. Kontzeju berriak eratu ahal izango dira, baina horretarako kontzejua eratu nahi duen biztanleguneak honako hauek frogatu beharko ditu:

a) Kontzejua, lurralde berarekin eta sustrai historikoarekin, aurretik ere izan dela eta arau hau onesten denean indarrean dagoen biztanleguneen izendegian egon dela.

b) Gutxienez hiru egurketa unitate daudela.

c) Toki administrazioaren arloko indarreko legezkotasuna betetzen dela.

65. artikulua. Kontzejua eratzeko prozedura

Kontzejuak berariaz ezarritako prozeduraren bidez eratuko dira. Honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Gutxienez hiru familia unitate egon behar dira inskribatuta udal erroldan.

b) Erakundearen lurralde eremuko auzotarren bi herenek idatziz eskatu behar diote Arabako Foru Aldundiari.

Eskaeran zehatz-mehatz azaldu behar da ordura arte nola ematen diren zerbitzu publikoak biztanlegunean eta nola dauden horretarako erabiltzen diren azpiegiturak. Gainera, kontzejuari atxikiko zaizkion ondasunen eta baliabide materialen zerrenda ere agertu beharko da, eta modu sinesgarrian frogatu beharko da baliabide horiek nahiko izango direla kontzejuaren eskumeneko zerbitzu publikoak emateko.

Horretarako, Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen dituen azterlan, analisi eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, bai eta behar dituen agiri guztiak eskatu ere.

c) Informazioa jendaurrean ipiniko da hogeita hamar egun baliodunez, auzotarrek nahi dituzten alegazio guztiak aurkez ditzaten idatziz. Aurkezteko epealdia amaitu ondoren toki erakundearen arloko eskumena daukan foru sailak hamabost egunetan ebatziko ditu alegazioak.

d) Udalak eta ukitutako kontzejuak edo kontzejuek txostena egin beharko dute hogeita hamar egun naturaletan. Ondoren, isiltasunak ondorio positiboa sortuko du.

e) Foru Aldundiak txostena egin beharko du, eta foru arauaren proiektua proposatuko die Arabako Batzar Nagusiei. Txostenaren aurretik Foru Administrazioaren Aholku Batzordeak irizpena eman beharko du.

f) Kontzeju berria eratzeke foru araua ALHAOn argitaratu beharko da.

g) Kontzejua Arabako Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatu beharko da.

Nolanahi ere, kontzeju bat eratzeke eskaera idatzia jasoz gero, Foru Aldundiak administrazio espediente hasi beharko du. Administrazio espedientean ondorioztatzen bada kontzejua sortzea ezinezkoa dela, ez duelako betetzen foru arau honetan xedatzen dena, Foru Aldundiak eratzearen kontrako ebazpena emango du eta administrazio bidea amaituko da. Batzar Nagusietan ez da egin beharko beste izapiderik.

II. KAPITULUA

Kontzejuak aldatzea

66. artikulua. Kontzejuak aldatzea

Kontzejuak aldatzeko, dela kontzejuaren izaera aldatzeagatik, dela kontzeju mugakide batean sartzeagatik edo kontzeju mugakide bik edo gehiagok bat egiteagatik, edo dela kontzeju baten parte bat bereizteagatik (modu autonomoan funtzionatzeko edo beste mugakide batean sartzeko), 65. artikuluan kontzejua eratzeko adierazitako prozedura bete beharko da, eta dago-kion foru-arauaren proiektua proposatuko da.

67. artikulua. Aldatzeko prozedura

Kontzejuak aldatzeko kasu horietan guztietan, eratzeko 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, eta, nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak txostena egingo du dagokion foru arauaren proiektuaren onarpenarekin batera. Txosten horren aurretik Arabako Foru Adminis-trazioaren Aholku Batzordeak irizpena emango du.

III. KAPITULUA

Kontzejuak desagitea

68. artikulua. Kontzejuak desagitea. Baldintzak eta prozedura

1. Kontzeju bat desagiteko hauetako bat gertatu behar da:

a) Kontzejuko auzotarren bi herenek idatziz eskatzea; nolanahi ere, antzinasunari dagokio-nez, auzotar horiek aurreko bi urteetan gutxienez eragindako kontzejuari dagokion udal erroldan inskribatuta egon beharko dute. Eskaera arrazoitu behar da.

b) Kontzejuak ez edukitzea bere eskumenak eta ahalak betetzeko behar dituen baliabide ekonomikoak.

c) Kontzejuko karguak ezin beste izatea erroldatuta dauden pertsonekin.

Kasu horietan, kontzejua desagiteko arrazoa zehaztu behar da berariaz egindako auzo batzarraren bilkurako aktan.

2. Hona kontzejua desagiteko prozedura:

a) Informazioa jendaurrean ipini behar da hogeita hamar egun naturalez iragarki taulan eta ALHAOn.

b) Udalak txostena egin behar du hogeita hamar egunetan. Aldi horretan egiten ez badu, isiltasunak ondorio positiboa sortuko du.

c) Arabako Foru Aldundiak txostena egin behar du. Aldundiak bidezko foru arauaren proiektua proposatuko die Batzar Nagusiei, desagiteko prozesua nola egingo den zehaztuta. Txosten horren aurretik Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeak irizpena emango du.

d) Onetsitako foru araua ALHAOn argitaratu behar da.

e) Kontzejua Arabako Toki Erakundearen Foru Erregistrotik ezabatu behar da.

69. artikulua. Oinordetza araubidea

Kontzejua desagiteko foru arauen proiektuetan, desagiten den erakundearen oinordetza araubidea ezarri behar da.

Berezko oinordea udala izango da.

Desagitearen ondorioz ez bada sortzen erakunde bereizirik, dokumentu eta bibliografia funtsak eta administrazio fitxategiak lurralde historikoaren esku geratuko dira.

Desagindako erakundeari atxikitako langileak desagiteak eraginkortasuna hartzen duenean daukaten legezko egoeran geratuko dira. Hori noiz gertatzen den desagiteen foru arauan zehaztuko da berariaz eta modu bereizian.

70. artikulua. Ondasunak eta eskubideak zaintzea

Desegindako kontzejuaren oinordea den erakundeak jasotzen dituen ondasunei eta eskubideei buruzko ordenantza ezarriko da. Bertan desegindako kontzejuko biztanleguneko auzotarrek eskualdatutako ondasunei eta eskubideei dagokienez dauzkaten eskubideak errespetatu behar dira.

Eskubide horiek irauten duten artean oinordea den erakundeak eskualdatu zaizkion denetarikoa ondasun guztiak gordeko ditu, ahal duela, noizbait kontzejua berriz eratu eta berreskuratu behar balitu ere.

Kontzeju bateko biztanleak desagertu eta ondorioz ez bada izapidetzen arau honen 68. artikuluan arautzen den espedienteak, Foru Aldundiak kontzejua atxikita egon den udalari aginduko dio gorde eta kudeatu ditzala ondasunak.

Aurreko paragrafoan arautzen diren kasuetan, Foru Aldundiak hamar urtez zainduko du ondasunak gordeta eduki diren xederako erabiltzen diren. Epealdia ondasunak berriz eratutako kontzejuari itzultzen zaizkionetik zenbatuko da.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru arau honen 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, etxebizitzat hartuko da eraikin itxi eta estalia, erabilera nagusitzat bizitegi-erabilera daukana eta Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzat eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan edo hura ordeztzen duen araudian eskatutako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituenak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru arau honen 11. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiko kargu hauek bateraezintasuna daukaten kargutzat joko dira: diputatu nagusia, foru diputatuak eta toki-erakundeei zaintza eta aholkularitza eskaintzeko eskumena duen saileko zuzendariak, autonomia erkidegoko administrazioari eta Estatuko administrazioari dagokienez, bateraezintzat joko dira Arabako Foru Aldundiari dagokionez aipatutako kargu horien baliokideak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Hauteskunde prozesuak dakartzan gastu guztiak Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura izango dira. Gastu horietan sartuko dira hauteskunde batzordearen funtzionamendu gastuak, bai eta teknikariek edo laguntzaileek sortzen dituztenak ere, batzarren idazkaritza nagusian lan egiten ez dutenenak, alegia (eginkizunak hobeto betetzeko hartu behar izan direnak). Halaber sartuko dira gastuetan ordezkarien gastuak.

2. Funtzionarioei hauteskunde prozesua prestatu edo egitearekin zerikusia duten zereginak aginduz gero, zeregin horiek ez badute loturarik haien lanpostuarekin, funtzionario horiek haborokinek jasotzea bateragarria izango da beti beste ordainsari batzuekin.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Arabako Foru Aldundiak laguntza eta lankidetzat emango die kontzejuei, foru arau honek sortzen diren betebeharrak bete ditzaten.

2. Udalek beren arteko eta beren lurraldeko kontzejuen arteko koordinazio sistema osagarri bat eratu ahal izango dute, etengabeko harremanetarako eta aholkularitza tekniko, juridiko eta ekonomikorako bide gisa.

Nolanahi ere, foru arau honetan aurreikusitako eskumenak erabiltzeko kontzejuak behar dituen baliabide materialak jarri ahal izango dituzte, horretarako hartutako erabakian xedatutakoaren arabera.

3. Kuadrillek kontzejuetako koordinaziorako berariazko batzorde bat eratu ahal izango dute.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Foru arau hau indarrean sartzen denean kargudunek ordainsariak jasotzea onetsita duten kontzejuek foru arau hau indarrean sartzen den urteko abenduaren 31rako onetsi beharko dute erabaki horiek indargabetzea. Nahi izanez gero, erabakiak hartu ahal izango dituzte foru arau honen 27. artikuluan xedatzen denari jarraikiz.

2. Kontzejuetako kargudunek jasoko dituzten ordainsarien zenbatekoa (foru arau honen 27. artikulua) arau hau indarrean sartzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen arautuko da Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren foru dekretu baten bidez.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio foru-arau honetan aurreikusitakoa gara dezan.

2. Foru arau honen 58. artikuluan arautzen den Gobernu Ona Behatzeko Organoaren osaera, eskudantziak, jardun araubidea eta jarduteko prozedura arau hau indarrean sartzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen arautuko dira Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren foru dekretu baten bidez.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru arau hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei aplikatu beharreko araubidea.

Lurralde historikoko kontzejuekin zerikusia duten espedienteak, foru arau hau indarrean sartzen den egunean Arabako Foru Aldundian hasita eta izapidetze fasean badaude, hasi zirenean indarrean zegoen foru araudiaren arabera bideratuko eta ebatziko dira oso-osorik, izapideak, txostenak, entzunaldiak, eskumenak eta prozeduraren berezko ondorioak barne direla."

LEHENENGO XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen dira 98/1995 eta 99/1995 foru dekretuak, kontzejuen izena, armarria eta zigilua aldatzeko prozedurak arautzen dituztenak.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen dira 1984ko uztailaren 30eko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen Errejidoreak eta Batzarkideak hautatzekoa, eta hura aldatzen duten arauak.

HIRUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen da Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakia, Arabako administrazio batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak ezartzen dituenak.

LAUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen da apirilaren 14ko 10/1997 Foru Araua.

BOSGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berariaz indargabetzen da martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua. Halaber, berariaz indargabetzen dira arau honetan xedatzen denarekin bat ez datozen gainerako xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

INDARREAN SARTZEA. Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 10a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA